



DEBAko UDALA

2015SPLI:0011
11. BILERA: OHIKOA 2015-10-29

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: hamaikagarrena

Eguna: 2015/10/29

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:30

Onarpen-eguna: 2015/11/26

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria


Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

Bertaratzeak eta irteerak

Gora-beherak

Udalbatza osatzen duten hamahiru kideak bilkuran direla, ahobatez erabaki dute gai zerrendako puntuak lantzen hasi aurretik Sahariarren kanpamenduetan egondako kalteei aurre egiteko diru-laguntza emateko gaia lantzea.

Mari Lu Albizu, Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak azaldu du, diru-laguntza eskaera astelehenean jaso zela Udalean eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordean aztertu beharreko gaia



DEBAko UDALA

izanda, Batzordearen urjentziarako bilera egingo dela datorren astean. Gainertu du, partidaren dirua badagoela eta kopurua zenbatekoa izango den Batzordearen bilera horretan finkatuko dela.


Beraz, diru-laguntza eskaerak datorren astean erantzuna edukiko du.



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2015/09/24)
2. Patronatuetoako batzorde erretoreko ordezkarien izendapena
3. 2016ko Ordenantza fiskalak- hasierako onespina
4. 3. Kreditu aldaketa -hasierako onespina
5. 2015UPPA0001 Elizburu Plan partziala- behin betiko onespina.
6. 2015SETX0001 Etxe tasatuen zozketaoinarriak aldatzea partzialki, plan partziala aldatzearen ondorioz.
7. Elizburu-a.300.3 partzela: Zortasuna (servidumbre) onestea, inskribatu ahal izateko.
8. Izaera pertsonaleko datuen tratamendurako hitzarmena CITA-rekin
9. Enplegua sustatzeko proiektuak gauzatzeko, udalen arteko hitzarmena
10. Mozioa: Hassanna Aaliari elkartasunezko adierazpena
11. Alkatetza Dekretuen zerrenda
12. Informazioa ematea: Auzi errekursoaren ebazpena-LOJENDIO-traslado Telefónica.
13. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2015/09/24)

Aimar Lasa zinegotziak ondoko zuzenketak egitea proposatu du:

- Aktaren puntu pare bat gehiago garatu daitezkeela uste du. Esate baterako, 12. puntuan Cristobal Del Corte zinegotziak esandakoak jaso beharko zirela uste du.
- 14. puntuan gehitu behar da idazkariak “txostena egingo duela” esan zuela.
- 14. puntuan, hirigintzako aholkularitza-zerbitzuaren kontratuaren inguruan, gehitu behar da, esleitzeko orduan euskara bermatzea badela puntu bat kontuan hartzen dena udal gobernuaren aldetik.

Ondoren, 2015eko iraiaren 24ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

2.- Patronatuetako batzorde erretoreko ordezkarien izendapena.

Proposamena

DEBA MUSIKAL PATRONATUKO BATZORDE ERRETOREKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA

Deba Musikal Patronatuko estatutuen 5. artikulua dio Batzorde Erretoreko kideak izango direla:

Lehendakaria: Alkatea
Bokalak: Hiru zinegotzi eta musika ezagutzak dituzten hiru pertsona.
Idazkaria: Udal Idazkaria edo berak izendatutako funtzionarioa.

Udal Batzarrari proposamena:

Lehendakaria: Alkatea- Pedro Bengoetxea
Bokalak: Iñigo Cambrero, Ane Egidazu, Iñaki Esnaola, Gaizka Ayastuy, M.^a Carmen Gorosabel, eta Andoni Iriondo.
Idazkaria: Raimundo Amutxastegi

MUSIKA ESKOLAKO ESKOLA KONTSEILUAN UDALETXEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA

Udal Batzarrari proposamena: Ane Egidazu



DEBAko UDALA

Iritziak eta galde erantzunak

Alkateak proposamenaren berri eman du.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, bere taldeari ez zaiola ondo iruditzen proposamena, beraien ustez alderdi guztiek eduki beharko luketelako ordezkari-tza patronatueta.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

bozketa

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	13
◇ Aldeko botoak:	8
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BONGOETXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGIDAZU, M ^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Aurkako botoak:	5
◇ Aurkako boto-emaileak: MAIDER ZUBIKARAI, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	0
◇ Emaitza: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 38.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzarrak hartu du erabakia, bozketan jasotako gehiengoarekin:

Lehenengo.- Deba Musikal Patronatuko batzorde erretoreko ordezkariak izendatzea:

Lehendakaria: Alkatea- Pedro Bengoetxea
Bokalak: Iñigo Cambronero, Ane Egidazu, Iñaki Esnaola, Gaizka Ayastuy, M.^a Carmen Gorosabel, eta Andoni Iriondo.
Idazkaria: Raimundo Amutxastegi

Bigarren.- Musika Eskolako kontseiluan udal ordezkaria izendatzea:

- Ane Miren Egidazu

Hirugarren.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.



DEBAko UDALA

3.- 2016ko Ordenantza fiskalak- hasierako onespena.

Iñaki Esnaola zinegotziak Finantza, Ondasun eta Kontuen Batzorde bereziaren proposamenaren berri eman du.

Txostena

Idazkariak ordenantza fiskalak aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren azalpena eman du: Udalbatzarrak tributuen ordenantza fiskalen onespenerari eta aldaketei buruz hartutako behin-behineko erabakiak Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Horrela dio uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituenak, 16. artikuluan.

Hogeita hamar eguneko epean interesatuek alegazioak aurkezteko aukera izango dute. Jendaurreko informazioaren emaitzak ikusirik, alegaziorik ez baldin badago, behin-behineko erabakia behin-betiko bihurtuko da. Jarraian, ordenantzen aldaketak osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

Udalbatzarraren erabakiari buruz, Idazkariak zera informatu du: ordenantza fiskalen aldaketak gehiengo soilaren aldeko botoa beharko du.

Iritziak eta galde erantzunak

Maider Zubikarai zinegotziak esan du, beraiek baiezeko botoa emango dutela, proposamenean hainbat irizpide mantentzen direlako: OHZn errenergua, automobilen tributazioa potentziaren arabera, OTA, auzokonposta egiteagatik %15eko hobaria ...

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, horretarako aintzat hartu da Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamena:

Lehenengo.- Onartzea Udal honetako 2016. ekitaldirako Ordenantza Fiskalak, laburpen honen arabera:

MODIFICACION ORDENANZAS FISCALES

2016

DENOMINACION DE LA EXACCION	TARIFAS	TARIFAS	TARIFAS	INCREMENTO	MAXIMO AUTORI ZADO
	ACTUALES	ACTUALES	PROPUESTAS	%	
IMPUESTO DE BIENES INMUEBLES		1.344.000 €		0%	
Urbana Residencial y Comercial	0,215	0,245			0,4
Urbana Industrial y Terciaria	0,432	0,497			0,6
Rustica	0,811	0,924			1,1
RECARGO 75% VIVIENDA NO HABITUAL (114.345€)					
BONIFICACION FAMILIA NUMEROSA EN FUNCION INGRESOS					
IMPUESTO CONSTRUC.INSTALAC Y OBRAS				0%	
Obras mayores	5	5			5
Obras menores	1,5	1,5			5
IMPUESTO CIRCULACION DE VEHICULOS		395.000 €		0%	
A) TURISMOS					
Menos de 9 cv	29,75	39,05			Coef. 2,2
De 9 a 11,99 cv	59,5	78,09			act. 2,04
De 12 a 13,99 cv	99,17	130,16			
De 14 a 15,99 cv	138,83	194,01			
De 16 a 19,99 cv	178,5	266,44			
De mas de 20 cv	218,16	350,54			
B) AUTOBUSES					
De menos de 21 plazas	137,45	181,48			
De 21 a 50 plazas	195,76	258,49			
De más de 50 plazas	244,7	323,09			
C) CAMIONES					
De menos de 1.000 Kgs.	69,76	92,11			
De 1.000 a 2.999 Kgs.	137,45	181,48			
De 2.999 a 9.999 Kgs.	195,76	258,49			
De más de 9999 Kgs.	244,7	323,09			

D) TRACTORES					
De menos de 16 cv	29,16	38,51			
De 16 a 25 cv	45,82	60,5			
De más de 25 cv	137,45	181,48			
E) REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES					
De menos de 1.000 Kgs. y más de 750 Kgs. Carga útil	29,16	38,51			
De 1.000 a 2.999 Kgs. de carga útil	45,82	60,5			
De más de 2.999 Kgs. de carga útil	137,45	181,48			
F) OTROS VEHICULOS					
Ciclomotores	7,29	9,63			
Motocicletas hasta 125 cc	7,29	9,63			
Motocicletas de 125 a 250 cc	12,49	16,49			
Motocicletas de 250 a 500 cc	25	33,74			
Motocicletas de 500 a 1.000 cc	49,98	69,82			
Motocicletas de más de 1.000 cc	99,96	146,98			
IMPUESTOS INCREMENTO VALOR TERRENOS		65.000 €		0%	
BASE IMPONIBLE					
Nuevos valores catastrales aprobados por D.F.					
PORCENTAJE A APLICAR					
De 1 a 5 años	3,6	3,6			3,6
De 5 a 10 años	3,4	3,4			3,4
De 10 a 15 años	3,1	3,1			3,1
De 15 a 20 años máximo	2,9	2,9			2,9
TARIFA					
Tipo de gravamen	7,0	13,07%			15%
TASA POR OCUPACION DEL DOMINIO PUBLICO MUNICIPAL		12.000 €			
A) VALLAS, ANDAMIOS, ETC.					
1.- Vallas y andamios: m2 y día					
Calles 1ª categoría	0,30	0,36	0,50	38,89%	
Calles 2ª categoría	0,21	0,26	0,30	15,38%	

Calles 3ª categoría	0,11	0,12	0,20	66,67%	
2.- Puntales o asnillas fuera de valla: m/l y mes					
Calles 1ª categoría	8,95	10,80	11,00	1,85%	
Calles 2ª categoría	5,59	6,74	7,00	3,86%	
Calles 3ª categoría	3,73	4,49	5,00	11,36%	
3.- Materiales de construcción: m2 y día					
Calles 1ª categoría	2,62	3,16	3,50	10,76%	
Calles 2ª categoría	1,86	2,24	2,50	11,61%	
Calles 3ª categoría	1,12	1,35	1,50	11,11%	
4.- Contenedores: 4 m2 por día					
Calles 1ª categoría	0,30	0,36	0,50	38,89%	
Calles 2ª categoría	0,16	0,21	0,30	42,86%	
Calles 3ª categoría	0,11	0,12	0,20	73,16%	
B) ENTRADAS VEHICULOS A GARAJES		23.000 €		0%	
1.- De uso particular: m/l y año					
Hasta 5 vehículos	25,37	32,21			
De 6 a 25 vehículos	38,09	48,35			
De 26 en adelante	57,09	72,49			
2.- De uso mercantil:					
Por m/l y año	39,66	50,35			
3.- Reservas en la vía pública					
Por m2 y año	38,50	48,89			
C) PUESTOS EN FERIAS Y FESTEJOS		16.500 €		0%	
Bares, cafés y similares: m2	23,31	29,59			
Churrerías, chocolaterías, etc.: m2	23,31	29,59			
Casetas de venta artículos: m2	15,53	19,72			
Caseta venta helados: m2	23,31	29,59			
Tómbolas, rifas, etc.: m2	23,31	29,59			
Casetas de tiro: m2	15,53	19,72			
Columpios, caballitos, etc.: m2	11,66	14,81			
Pistas autos choque: m2	4,17	5,29			
Espectáculos y teatro: m2	0,76	0,95			
Circos: m2	0,76	0,95			
Recinto ferial. Venta ambulante. M2 día		4,96			

D) MESAS Y SILLAS VIA PUBLICA			11.000 €		
Durante 3 meses verano: m2	3,20	25,45	25,70	0,98%	
Fuera temporada m2	25% temporada	4,29	4,33	0,93%	
E) CAJEROS AUTOMATICOS					
Al año por unidad		352,1	355,62	1,00%	
F) APROVECHAMIENTO SUELO, SUBSUELO Y VUELO DE LA VIA PUBLICA			100.000 €		
Empresas explotadoras de servicios:					
Base imponible	Facturación	facturacion			
Tipo gravámen	1,5%	1,50%	1,50%	0%	
G) Gruas: M2 y día					
Calles 1ª categoría	0,30	0,352	0,356	1,00%	
Calles 2ª categoría	0,21	0,252	0,255	1,00%	
Calles 3ª categoría	0,11	0,131	0,132	1,00%	
H) ESTAC.VEHICULOS ZONAS REGULADAS		Tarifas Actuales	110.000 €	0%	
sector 1 Gudarien plaza	30 '	30 '	gratuito		
sector 2 (invierno) Estación	1 hora	1 hora	0,35		
	24 horas	24 horas	1,35		
		Residentes	gratuito		
sector 2 (verano)	1 hora	1 hora	0,8		
	1,5 horas	1,5 horas	1,15		
	2 horas	2 horas	1,5		
	2,5 horas	2,5 horas	1,8		
	3 horas	3 horas	2,25		
			Residentes	gratuito	
		Veraneantes	2,25€/día		

sector 3 (invierno) Nafarroa plaza			gratuito		
sector 3 (verano)			1,50€/hora		
			0,90€ 1/2 hora		
		Residentes Veraneantes	2,25€ dia		
		Abono Veraneantes	25 €		
				gratuito	
sector 4 (invierno) Alameda Calbeton,Markiegi,Mariñel, Bastinuixa,Monreal			gratuito		
sector 4(verano) Alameda Calbeton,Markiegi,Mariñel, Bastinuixa,Monreal			1,50€/hora		
			0,90€ 1/2 hora		
		Residentes Veraneantes	gratuito		
		Abono Veraneantes	25 €		
Anulacion multas			15 €		
TASA POR PRESTACION DE SERVICIOS Y REALIZACION ACTIVIDADES					
A) MERCADO MUNICIPAL DE ABASTOS					
CARNICERIAS				0%	
Por cada puesto al mes	105,78	108,64			
ULTRAMARINOS FRUTERIAS					
Por puesto ultramarinos-frutería al mes	105,78	108,64			
Por puesto ultramarinos, al mes	50,42	51,78			
Por puesto de frutería, al mes	33,72	34,63			
PESCADERIAS	67,25	69,07			
CAMARAS FRIGORIFICAS					
Por cámara fija, al mes	33,72	34,63			
Por cámara móvil, al mes	8,05	8,27			
PUESTOS BANCOS CASERAS					

Por cada puesto, mes	1,50	1,54		
Por cada puesto, año	9,02	9,26		
POR CONCESION LICENCIA				
Por carnicería	1.863,14	1.913,44		
Por ultramarinos.frutería	1.863,14	1.913,44		
Por ultramarinos	1.111,87	1.141,89		
Por Pescadería	1.111,87	1.141,89		
Por cámara frigorífica fija	350,39	359,85		
MERCADO AMBULANTE				
Por cada puesto: m2 y día	0,78	0,80		
B) EN OTRAS MATERIAS DE COMPETENCIA MUNICIPAL				
Consultas o informaciones urbanísticas	73,73	97,3	98,27	1,00%
Expedientes de declaración de ruina fincas urbanas	54,87	69,68	70,38	1,00%
Expedientes actividades RAMINP cuando se concede licencia	210,18	266,88	269,55	1,00%
Los mismos expedientes cuando se deniega la licencia	74,98	95,92	96,88	1,00%
Expedientes no sujetos a RAMINP cuando se concede licencia	104,99	133,3	134,63	1,00%
Expedientes no sujetos a RAMINP cuando no se concede licencia	37,49	47,58	48,06	1,00%
Expedicion fotocopias	0,10	0,11	0,11	1,00%
Expediente funeral civil		41,33	41,74	1,00%
Actos privados sala de los espejos.Agirre Jauregia.		82,65	83,48	1,00%
C) GESTION PLANES URBANISTICOS				
Planes especiales	1.155,20	1.466,89	1.481,56	1,00%
Proyectos de urbanización	1.155,20	1.466,89	1.481,56	1,00%
Estudios de detalle	1.155,20	1.466,89	1.481,56	1,00%
Modificacion NNSS	1.155,20	1.466,89	1.481,56	1,00%
Expediente de segregación y agrupación.Parcela < 15.000 m2		289,29	292,18	1,00%
Expediente de segregación y agrupación.Parcela > 15.000 m2		480,68	485,49	1,00%
D) LICENCIA DE APERTURA ESTABLECIMIENTOS		7.000 €		0%
Hoteles por cada estrella	201,20	265,84		
Hostales y residencias por cada estrella		160,54		
Restaurantes y casas comidas por cada tenedor	209,24	277,40		
Bancos y Cajas de Ahorros	1.738,34	8.347,73		
Cines y Salas de Fiestas	836,98	1.109,61		
Bares especiales, pubs y cafeterías	402,39	532,96		

Bares, tabernas y sociedades	251,05	332,61			
Apertura de garajes por cada plaza		141,26			
Clinicas,consultas medicas,dentistas y similares		1.156,18			
Estaciones de servicio o gasolineras		7.774,98			
Farmacias		1.412,70			
Joyerias,platerias y relojerias		1.091,63			
Tiendas al por menor	201,20	267,13			
Tiendas al por mayor	260,78	345,46			
Gestorías, sucursales, despachos profesionales	167,40	222,16			
Kioskos parrticulares	167,40	222,16			
Peluquerías	167,40	222,16			
Talleres familiares	160,96	213,19			
Actividades industriales sujetas a RAMINP		3€/ m2	Máximo 7.000€ , mínimo 2.000€		
Actividades industriales no sujetas a RAMINP		1€/m2	Máximo 2.500€ , mínimo 500€		
Actividades de almacenaje				minimo 300€	
Hasta 500 m2		4€/M2	Máximo 1500	minimo 500€	
Desde 500 m2 -hasta 2000 m2		3,50/M2	Máximo 3750	minimo 3000€	
Desde 2000 m2 -hasta 3500 m2		3€/M2	Máximo 8000	minimo 5000€	
Desde3500 m2 -hasta 5000 m2		2,5€/M2	Máximo 10750	minimo 7000€	
Mas de 5000 m2		2€/M2	Máximo 15000		
E) CEMENTERIOS		3.000 €		0%	
Por cada inhumación	133,90	217			
Por cada exhumación	41,78	51,67			
Por traslado de restos mortales dentro del propio cementerio		56,34			
Por limpieza de panteón	33,21	42,17			
Por limpieza de nicho	20,35	25,84			
Por limpieza de sepultura	17,14	21,74			
F) RECOGIDA DE BASURAS		570.000 €		0%	

Servicios	socios	socios	no socios	socios	no socios
Sauna	3,1	4,41	6,79	gratis	5
Alquiler cancha polivalente	16,5	17,93	17,93	25	25
cancha descubierta de tenis mayor 18 años				10	10+entrada
cancha descubierta de tenis menor 18 años				6	6+entrada
Actividades dirigidas PRECIO MES	socios	socios	no socios	socios	no socios
PILATES.2 sesiones semana.		82,4	103,98	35	50
PILATES.1 sesion semana.				50	65
Gimnasia hipopresiva				32	45
MULTIFITNESS. 2 sesion semana.		71,72	93,25	30	44
Cross-fit 2 sesiones semana				30	44
Zumba 2 sesiones semana				30	44
GAP/BOSU 2 sesiones semana.		71,72	93,25		
STEP-BODY TRAINING .2 sesiones semana.		71,72	93,25		
CICLING.2 sesiones semana.		82,4	103,98	32	45
CICLING.1 sesion semana.		45,42	57,38	20	30
FITBOX.2 sesiones semana.		71,72	93,25	30	44
CLASES INDIVIDUALES		4,53	6,21	6	8
Combinados a más de una actividad 15% de descuento					
Test de valoracion fisica + prescripción y programacion en aparatos de fitness				25	37,50
FRONTON ALDATS					
PARTICULARES					
Vecinos de Deba					
Sin alumbrado, una hora	3,40	8,81	8,00	-9,19%	
Con alumbrado, una horas	5,00	11,01	12,00	8.99%	
De fuera de Deba					
Sin alumbrado, una hora	4,25	11,01	12,00	8.99%	

Con alumbrado, una hora	6,65	13,19	16,00	21,30%	
	0,55				
FRONTON DE ITZIAR					
PARTICULARES					
Vecinos de Deba-Itziar					
Sin alumbrado, una hora	3,40	4,38	6,00	36,99%	
Con alumbrado, una horas	5,00	6,62	10,00	51,06%	
De fuera de Deba					
Sin alumbrado, una hora	4,25	5,50	10,00	81,82%	
Con alumbrado, una hora	6,65	8,81	14,00	58,91%	
H-INMOVILIZACION Y RETIRADA VEHICULOS				0%	
1-Bicicletas, triciclos....	6	6			
2-Automoviles turismo, furgonetas....					
a) Infraccion ota, zona azul	15	20			
b) Infraccion normas circulacion	20	25			
IMPUESTO ACTIVIDADES ECONOMICAS		265.000 €		0%	
CUOTAS:					
Las señaladas por la Diputación					
COEFICIENTE	1,65	2,16			2,2



DEBAko UDALA

Bigarrena.- Hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendaurrean ipintzen da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Gipuzkoako Herri Ogasunen Arautzailea, lehen aitaturako artikuluen 2. puntuak agintzen duen eran:

a) Ikusgai dagoen lekua: Udaletxe honetako Kontu-hartzailletzan.

b) Aztertu eta erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun behin iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, bulego orduetan.

c) Erreklamatu dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. Artikuluan adierazten direnak.

d) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Halaber, Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Jardunbidearen Legeak 38. Artikuluan aipatzen dituen lekuetan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Erreklamazioak edo iradokizunak egiteko arauzko epean inork ez balu egingo, erabakiak behin-betikotzat hartuko lirateke akordio berririk hartzen ibili gabe.

4.- 3. Kreditu aldaketa -kreditu gehigarrien modalitatean, onartzeko proposamena.

Iñaki Esnaola zinegotziak Finantza, Ondasun eta Kontuen Batzorde bereziaren proposamenaren berri eman du.


Idazkariak informatu du, kreditu aldaketa proposamenarekin batera, zinegotziei txosten bat helarazi zaiela Sortegi S.L. ri dagozkion kopuruei buruz. Bide batez, 136/2015 sententzia helarazi zaie.

Kreditu gehigarrien proposamena

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipaturako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzea proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

3. KREDITU ALDAKETA 2015-KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
6	Inbertsio errealak (Sortegi, S.L.)	825.000



DEBAko UDALA

KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		825.000

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6	Inbertsio errealaren inorenganatzeta (Elizburuko partzela)	825.000
GUZTIRA		825.000

Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamena

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guziarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 825.000,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Iritziak eta galde erantzunak

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, 2011 urtean berak Udal Gobernua hartu zuenean Udaleko egoera ekonomikoa talmalgarria zela: Sortegiko gaia, Udal Finantziatorako Foru Fondoa itzuli beharra, hirigintzako gaiak.... Eta lau urtetan Udal Finantziatorako Foru Fondoa itzuli egin dela, ez dela mailegurik eskatu... Horren harira esan du, beraiek entzun behar izan dutela Bildurentzat gobernatu dutela eta ez herri osoarentzat, baina eramandako kudeaketaren ondorioz, orain, altxortegia dago eta sententziak dioena ordaindu daiteke.

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, horretarako aintzat hartu da Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamena:

Lehenengo.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 3. espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:



DEBAko UDALA

Kapitulua	Izena	Gehikuntza
6	Inbertsio errealak (Sortegi, S.L.)	825.000
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		825.000

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6	Inbertsio errealaren inorenganatzea (Elizburuko partzela)	825.000
GUZTIRA		825.000

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

5.- 2015UPPA0001 Elizburu Plan partziala- behin betiko onespena.

Aurrekariak

2015eko irailaren 24an Alkatetza Dekretu bitartez onartu zen Proteisa 2002 SL-k aurkeztutako Elizburuko 1 sektorearen Plan Partzialaren bigarren aldaketa puntuala.


Irailaren 30ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta jendaurrean jarri zen. Interesdunei 20 eguneko epea eman zitzaien ekarpenak egiteko edo alegazioak egiteko.

Emandako epean ez da alegaziorik egon.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Plan partziala araututa dator:

“95. artikulua.– Plan partzialak izapidetzea.

- 1.– Plan partziala egitea udalei dagokie, berez, baina beste edozein pertsona fisiko edo juridikok ere egin dezake.
- 2.– Udalak hasierako onespena edo ezespren arrazoitua emango dio plan partzialari. Lehenengo kasuan, jendaurrean jarriko du, udalerrinari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasierako onespena emateko



DEBAko UDALA

erabakia argitaratuz. Plana 20 egunezeegongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera.

3.– Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. “

Hirigintza batzordearen proposamena

Alegaziorik egon ez denez, batzordekideek behin betiko onespena egieko proposamena luzatu diote Osoko Bilkurari.

Iritziak eta galde erantzunak

Maider Zubikarai zinegotziak aipatu du, deialdiarekin batera ez dela dokumentaziorik bidali baina Hirigintza batzordean gaia tratatu zela.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, horretarako aintzat hartu da Hirigintza batzorde informatzailearen proposamena:

Lehenengo.- Behin betiko izaeraz onartzea Proteisa 2002 SL-k aurkeztutako Elizburuko 1 sektorearen Plan Partzialaren bigarren aldaketa puntuala.

6.- 2015SETX0001 Etxe tasatuen zozketaren oinarriak aldatzea partzialki, plan partziala aldatzearen ondorioz.

Aurrekariak

Udal Batzarrak 2015eko otsailaren 26an erabaki zuen Debako Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan Proiektatutako Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko 21 etxebizitzan eta atxikitutakoak (trasteleku eta garajeak) zozketa arautuko duten oinarriak onartzea.

Oinarri horiek 2015eko martxoaren 5ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

2015eko irailaren 24an alkatetza Dekretuz hasierako onespena eman zitzaion “Elizburu” 1 sektorearen Plan Partzialaren bigarren aldaketa puntualari. 2015eko irailaren 30ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 20 egunez jendaurrean jarri. Epe horretan ez da alegaziorik jaso eta 2015eko urriaren 29ko Udalbatzarraren saioan behin betiko onespena eman zaio.

Plan partzialaren arabera 34 etxebizitza eraikiko dira eta horietatik bat zozketatik kanpo geratuko da birkokatze espedienteari baitagokio.

Bestalde, zozketan parte hartuko dutenen behin behineko zerrendan ez dago ezintasunak dituzten pertsonarik, beraz, honela banatzen dira etxebizitzak:



DEBAko UDALA

N.º Logela bateko etxe bizi tzak: 6.

N.º Bi logeletako etxe bizi tzak: 10

N.º Hiru logeletako etxe bizi tzak: 18

Zozketa tokia, berriz, ez da izango Udalbatzarraren aretoa, kiroldegia baizik, izan ere, Udalbatzarraren gela txiki geratzen da espero den pertsona kopurua hartzeko.

Etxe kopurua aldatu da, eta ondorioz, etxebizitzaren metro koadroak eta prezioak egokitu egin dira.

Iritziak eta galde erantzunak

Maider Zubikarai zinegotziak aipatu du, deialdiarekin batera ez dela dokumentaziorik bidali baina Hirigintza batzordean gaia tratatu zela.

Alkateak azalpenak eman ditu zozketan onartutakoei emango zaien informazioari eta dokumentazioari buruz, zozketari buruz...

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, horretarako aintzat hartu da Hirigintza batzorde informatzailearen proposamena:


Lehenengo.- Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan proiektatutako babes publikoko udal erregimen tasatuko 34 etxebizitzaren eta atxikitutakoak (trasteleku eta garajeak) zozketa arautuko duten oinarriak partzialki aldatzea.

Bigarren.- Oinarrien testua Udaleko iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

7.- Elizburu-a.300.3 partzela: Zortasuna (servidumbre) onestea, inskribatu ahal izateko.

Proposamena

Elizburuko 1. sektoreko Birpartzelazio proiektuak hainbat zortasun aurreikusten zituen a.300.1, a.300.2, a.300.3 eta a.300.4 partzelen artean; bertan, onibar nagusitzat jotzen ziren a.300.1, a.300.3 eta a.300.4 partzelak eta onibar zerbitzaritza a.300.2 partzela, azken horretan dagoelako aurreko hiruretako garajeetan sartzeko arrapala.



DEBAKO UDALA

Proteisa 2002 S.L.k a.300.1 eta a.300.2 partzelen obra berria deklaratzekoan, inskribatuta zegoen zortasun horrez gain, beste zortasun bat eta lau partzela horien arteko komunitate arauak begietsi ditu: oinezkoen irteera, euri-uren hodi orokorra, koipe bereizkailua bere sare eta hustubideekin, hargune elektrikoa eta suteen kontrako instalakuntza, laurentzako instalakuntza komunak izango direlako.

Obra berriaren deklarazio-eskrituretan jasota dago Proteisa 2002 S.L.ren jabegokoak direla a.300.1, a.300.2 eta a.300.4 partzelak; a.300.3 partzelaren eskritura, ordea, Proteisa 2002 S.L.ri adjudikatuta egon arren, egiteke dago eta finka Debako Udalaren izenean dago inskribatuta.

Obra berriaren eskritura-dokumentuak kalifikatzerakoan, erregistratzaileak bertan behera utzi du a.300.3 partzelari dagokion zortasun eta komunitate arauen inskripzioa (oinetzkoen irteera, euri-uren hodi orokorra, koipe bereizkailua bere sare eta hustubideekin, hargune elektrikoa eta suteen kontrako instalakuntzen gainekoa). 3. Arauan (zenbait partzelen elementu komunak) eta 6.ean (erdisotoko solairuaren lehenengo azpikomunitatea) zortasun eta komunitate arau horiek sartuta dauden arren, erregistroan, Debako Udala agertzen delako aipatutako partzelaren titular gisa eta ez Proteisa 2002 S.L.; inskripzioa egiteko udalaren onarpena falta da, beraz.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, horretarako aintzat hartu da Hirigintza batzorde informatzailearen proposamena:


Lehenengo.- Zortasuna eta Komunitate Arauak onartzea oinezkoen irteera eta euri-uren hodi orokorra, koipe bereizkailua bere sare eta hustubideekin, garaje eta suteen instalakuntzaren hargune elektrikoari buruzkoak, 3. Arauan barneratuak.-Hainbat partzei buruzko elementu amankomunak eta 6. Arauari dagokionez.-erdisotoko solairuaren lehenengo azpikomunitatea, hori guztia a.300.3 partzelari buruz, Debako Udalaren alde inskribatuta (8217 zenbakia; 183 orria; 2132 Artxiboaren liburukia, Debako 174 liburua).

Bigarren.- Alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean dagozkion dokumentuak sinatzeko.

8.- Izaera pertsonaleko datuen tratamendurako hitzarmena CITA-rekin.

Aurrekariak

Alzheimer gaixotasunari aurre egin ahal izateko proiektu bat jarri da martxan: STOP Alzheimerri-2020. Horretarako, ikerketa bat egingo da 60 urtetik gorako gure herriko pertsonekin eta Cita- Alzheimer fundazioak izaera pertsonaleko udal erroldako datu batzuk



DEBAko UDALA

behar ditu. Udalak Fundazioaren esku datu batzuk utziko ditu, hori dela eta, hitzarmen bat sinatu behar da, datuen erabilpen egokia egiten dela bermatzeko.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela inforatu du:

Erabakia.

Hitzarmenaren berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

Lehenengo.- Cita-Alzheimer Fudanzioarekin hitzarmena sinatzea, 60 urtetik gorako Debako biztanleen udal erroldako datuen tratamendua egiteko, osasun ikerketa egiteko helburuarekin.

Bigarren.- Alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko.

9.- Enplegua sustatzeko proiektuak gauzatzeko, udalen arteko kudeaketa-gomendioaren hitzarmena sinatzeko proposamena.

Aurrekariak

Enplegua eta Tokiko Garapena sustatzeko, Lanbidek laguntzak kaleratu ditu 2015erako. Diru-laguntzak eskualde mailan eskatu dira eta horren kudeaketaz Elgoibarko Udala arduratzen da.

Harremanak arautzeko edo kudeaketa-gomendio hori arautzeko hitzarmen bat sinatu behar da Elgoibar, Eibar, Soraluze, Deba, Mendaro eta Mutrikuko udalen artean.


Iritziak eta galde erantzunak

Maider Zubikarai zinegotziak proiektuen inguruan galdetu du.

Marilu Albizu zinegotziak azaldu du, diru-laguntzak onartuta daudela, eta Batzordeak erabaki zuela proiektua gauzatzeko administrazio kontratua izapidetzea. Horretarako, pleguak Tokiko Gobernu Batzordeak onartu ditu eta kontratua otsaila eta maiatza bitartean gauzatuko da.

Erabakia.

Hitzarmenaren berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia legezko hamahiru kideak bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Gizarte Zenbitzuen batzorde informatzailearen proposamena:



DEBAko UDALA

Lehenengo.- Debarreneko Luralde eremuan, Enplegua eta Tokiko Garapena sustatzeko proiektuak (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenek) gauzatzeko Elgoibar, Eibar, Soraluze, Mendaro, Deba eta Mutrikuko Udalen artean egiten den kudeketa-gomendioaren hitzarmena onartzea.

Bigarren.- Hitzarmena sinatzeko ahalmena, alkateari ematea.

10.- Mozioa: Hassanna Aaliari elkartasunezko adierazpena.

Aimar Lasa zinegotziak mozioa irakurri egin du:

HASSANNA AALIARI ELKARTASUNEZKO ADIERAZPENA

Mozio hau izenpetzen duten talde politikoei, indarrean dagoen legeriaren babesean, bere eztabaidarako eta onespenerako hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Erakundearen Osoko Bilkurari, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan. 2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urriaren ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoarrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrek 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebeldean aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari prestigioetsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genevako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabetasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoarrek eguneroko Herri Sahararra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Hassannaren abokatuek Auzitegi Nazionalan helegitea aurkeztu zuten eta onartua izan zen. **Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten du.** Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.

2015eko urriaren 6an Burgosen atxilotu zuten. Ondoren zehapen-prozedura bat zabaldu zioten, bere abokatu Javier Canivellek 48 ordu baino gutxiagon errekurritu duena. Prozesu hau estatutik kanporatzeko proposamenean amai daiteke.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Bilkura honek honako **ERABAKIAK** hartu ditu:

1. Hassanna Aaliari eta bere familiari sostengua eta elkartasuna adieraztea.



DEBAko UDALA

2. Arbuiatu egiten du Hassanna Aalia giza eskubideen aldeko saharar ekintzailea urriaren 6an Burgosen atxilotu izana eta ondoren zabaldu den prozedura.

3. Egiatzatzen du Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten duela. Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.

4. Barne Ministerioari eskatzen dio Hassanna Aaliak asilo politikorako duen eskubidea aitortu dezala, bere erabakia berriz aztertuz, nazioarteko babes-eskaera 12/2009 Legeak ezarritakoarekin bat onartuta. Izan ere, bere herrialdera itzuliz gero Marokoko agintari okupatzaileek gogor zigortuko dute eta ezin izango da presondegitik irten bizitza osoan, politikoki aktiboa eta nazioartean ezaguna izateagatik, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidearen alde modu baketsuan borrokatzeagatik.

5. Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea.

6. Berretsi egiten ditu bere konpromisoa Saharar Herriarekin eta bere babesa ekimen politiko eta sozialen alde, konponbide justua eta behin betikoa lortzera bideratuta, NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatuz; hau baita konfliktu luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.

7. Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:

a. ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

b. ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

c. KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

d. ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI

Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid

e. NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

f. ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN:

Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid

g. EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI.

Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

h. EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI.

Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas

i. MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.

c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.

Iritziak eta galde erantzunak

Cristobal del Corte zinegotziak esan du eskubideen aurkako ekintza bat dela, eta bere taldeak aldeko botoa emango duela.

Bozketa arrunta egindoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:



DEBAko UDALA

Erabakia.

Mozioaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

Lehenengo.- EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartzea HASSANNA AALIARI elkartasunezko adierazpenaren inguruan.

11.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

106	2015/09/24	Elizburuko bigarren aldaketa puntualaren hasierako onarpena	2015UPPA0001
107	2015/09/28	Arrano Elkarteari baimena proiektorea eta pantaila lagatzeko	2015ALES0096
108	2015/09/28	Erroldan baja ematea	
109	2015/09/28	Erroldan baja ematea	
110	2015/09/28	Erroldan baja ematea	
111	2015/10/06	Eguneko Zentrorako langilearen kontratazioa: Urriaren 8 eta 9 (lan baimena)	
112	2015/10/06	Eguneko Zentrorako langilearen kontratazioa: Urriaren 13 (lan baimena)	
113	2015/10/19	Biztanleen erroldan ofizioz baja ematea	
114	2015/10/21	Eguneko Zentrorako langilearen kontratazioa: Urriaren 23 (lan baimena)	
115	2015/10/23	Gazte Asanbladari baimena mahaiak, aulkiak eta proiektorea erabiltzeko	2015ALES0110

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

12.- Informazioa ematea: Auzi errekursoaren ebazpena-LOJENDIO-traslado Telefónica.

Zinegotziei Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko epaitegiak, urriaren 15eko 284/2015 Autoaren testua eman zaie.

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.


13.- Eskariak eta galderak.

Itziar Irizar zinegotziak galdetu du UEMA eta Debemenen auzo ordezkaria egoteko aukeraren inguruan.

Alkateak erantzun dio Debemeneko Agurtzanerekin egon dela eta UEMAREN inguruan ez dakiela ezer.

Maider Zubikarai zinegotziak gogorarazi du Udalbatzarraren aurreko saioan komentatu zela begiratuko zela aukera hori.

Ane Miren Egidazuk dio aurreko Udalbatzarraren saioan ez zela egon baina begiratuko duela.



DEBAko UDALA

Aimar Lasa zinegotziak zabor bilketaren inguruan galdetu du. Cristobal del Corte zinegotziak azaldu du, Mankomunitatean kronograma bat landu dutela eta Mutrikurekin batera egingo dela. Jadanik kamioi eta kontenedoreen esleipen espedientek martxan daudela eta akaso ekain bukaerarako sistema martxan egon daitekeela. Tartean sentsibilizazio kanpaina egitea aurreikusita dagoela dio.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, Tokiko Gobernu Batzordean ez dutela parte hartzen baina deialdiak eta aktak jasotzea eskatu du. Alkateak baiezko erantzuna eman dio. Unai Lekube zinegotziak gaineratu du horren harira, Partehartzea Batzordean pentsatu dutela web orrialdean aktak jartzea.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2015eko urriaren 29a

IDAZKARIA

